

BERMEO

Garrilla'ren 22 izan da Maria Madalene itxas jai eguna. Erri onetan antxina antxinaitik ezaguna don jai berarizko bat egiten dabelarik alartasunez beterik erri guztiak, batez be gazte-diak.

Eguberdi inguruan txanbolin soñuakin Ayuntamentua izaten da meza ixilla entzuteria Santa Eufemia'ko eliza zarrin. Santa onen irudiaren aldar, amaituta gero jarraian doiaz txalupa baten Izaroko urarte edo islara bertan erakusmen bat emonik beren jaubetasun ezaugarritzat tella zar bat jaurtirik itxasora, gero goian ikurriña jarri.

An gora igoteko ez da eroso daukan bidea gaur egunian. Antxina karearri landuko arri ederrakin mallak egozan, ikusten denez gaur egunian ondiño-karren zati bat. Goi onetan gure erri aldera begira dagoz, komentu zareko orma zatiak, ura artzen eben oxin edo patina bere bai. Diñoe eliza onetako zala Maria Madalene'en irudia, guar erriko elizan ikusten deguna. baita be, gurutze bat Bilbao'ko «Museo Etnografico»an dagoena.

Atxa andi onen inguak guztiz andiak ta ederrak dira, udaldian batez bere, bertan egunondo emoteko ta osasun onerako, geure birriak itxas bedar, aize osasuntsuz, ur garbi kresalaz garbitzeko. Aitz orretan bizen dira ta or dauke euren bizi lekua inguruko itxas txori guztiak, bada eura dira benetako jabiak. Baita be daukoz non koxu, lanpernak, muxillak, magurio, lapak eta esku apaiur isasun, lupia ederrak.

Izan zan aspaldi baten surromorroa barriztatu biar zala lekerete ori baña...? dana ixildu da. Zer jazo da?


Eta goazen leno arira. Bein amaituta urarte edo islan Udaldian euren betekizunak doiaz Elantxobe'ko errira ta antxe bazkal aurretik bertako agintarriakz batirik, aurreku eder bat dantzatu ta gero anaitasun andiz danak banian oturantz on bat egitera eldu.

Arratsian eskeratuten dira, baña bidean sartu-urten bat egiten dabe Mundaka'ko errian, baidin erri onetaxen be anaitasun andiz agintariekin aurreku dantzatu ta gero aurrera, danak errira. Edozein ontzitan, aldabénak aldan lekuan, gazte-riak urtetan dautse bidera ta jiraka lagundu Ayuntamentua dakarren txalupa. Errian onak ipiñita ta batera muxikokin doiaz Udaletxeko plaza aurrera, bidean neska mutillak es-

leikade bateri otu yakon arri ori ataratea. Ekinda, arria erabilili bai-eban, baña berialaxe, asi ziran sendoro ikara egiten ezkaratza, lekaretxia ta egarte edo aitz osua, lekaide azarrija be auzpaz jauzi zan, eta iges eginda, arria geldi geratu zan.

Gertapen onek lekaretxeko guztiak izutu euzan».

Erri abesti errikoi sarraren izkria onelaxe da, sarren artian batez be asko entsuten dana.



kuak emonik aurreku antzera ijiji ta zantzoka kalia gora.

Asko dira jai polit ai ikustera dotozan albo errietatik, ta Bilbo'tik bertatik bere bai. Erromeri onetan soñu dantzaketa guztia da, biribiketak ta ariñ ariñak, olan asazkatzen dira gazteok egun alai onetan.

Jakin daizuen zer diñozan Edestiak Iزارo onetaz irakurri auxe, egutegiko orritxu batetik artuta dago:

«Bermeo ta Mundaka'ko aurrin eta itxasoko uretako artian dago Iزارo edo Itzaro deritxon arri andi bat, eta ementxe geure irakurleri jakierazoko dautsegu 1638'garren urteko egun onetantxe jazo zalako. Ango lekaretxiaren ezkarateko orma batan sartuta arri bakan-bakan bat egoan, eta egun batean Ana (Anai edo Fray) Belautegi'tar Pantzeska eritxon

«Talakotxea biba la kalle auxe da bai, gure kalia, Bentanetatik ikusten dogu izaroko islia, komentu zarra eta Maria madalena. Beulaniko parririk an dago iru meza entzuteko Izaroko islan Madalen egunian erromeria egiten da urtian urtian txalupakin gaztediak Ayuntamentu jaunari estropadan laguntzeko da jiran gero etorri. La, la, la, la, ra, la...»

Aupa bermeotarrak, gazte ta zarrak, olgau daigun danok, umore onian!

Bko

DIZDIRAK

Egun batzak direia bere jaiotz erria dan Ori'o'n D. Juan Zaragueta akademiko ta profesoro opetsuari omenaldi bero bat egin diote bere erri-ideak.

Don Juan nere aspaldiko adixkide agurgarria dalarik nik ere gizon jakin ta zuzen oni ez burutik baizik biotzetik sortutako itz batzuk eskeini nai nizkioke «Dizdira» ontan.

Arrek egindako lan zeatzak —gutxienez 145 tratadu ta esaio philosofia soziologia, pedagogia ta erlijiozkoak— nola «dizdiratu» ain une estu ontan? Gauza asko baño gauza bat bakarrik esatea trabatsua gora izaten da sarritan. Seroi luzea baño laburra asmatzea zallagoa izan oi da predikalari guziak dakiten bezela.

Irakurleen baimenarekin saiatuko gera nolanai ere.

Norbaitek esan du: «nola dan gizona ala da berak aukatzen dun philosofia-aren mo-

DON JUAN ZARAGUETA'ri OMENEZ

ta». Baliteke ori egi izatea, be-ñepein aldi ontan.

Nola da Don Juan Zaragueta'n philosofia?

Philosofia-aren gañean milla definizio eman dira eta norik bere gogapen ezberdiña badu.

Oyen artean orra gure oriotarrak naiago izaten omen duna: «giza-biziaren prolema guzien ikuskuntza osoa». «La vision universalista de los problemas todos de la vida humana». Zaragueta jaunak dionez bere «Filosofia y Vida» izenburuko liburuan.

Beraz philosofia-aren joku nagusiak giza-egutzak antolatzeta eta lerrotzea izan bear du. Don Juane'k orixe egin du beintzat eta jakintzale estimagarri au «pentsaera-antolazatzeta» begiratu bear degu batez ere. Or dezute, nere iritzi apalaz, bere sail ixilla ta guziz onurakorren nuña.

Bere philosofia korapillorik

eztu ez eta zulorik ere, zentzu-onekoa da-ta.

Nolako gizona alako bere philosofia!

Gizon zentzuduna, plomatua ta prestua. Bai ta baketsua ere.

Gaurko munduan ez bakarrik politikan eta erlijioan, philosofia-aren gaietan ere bai franco estabaida aundi badago.

Ainbeste pentsa-molde artean D. Juan bakezko-gizonat agertzen zaigu. «Ezkerretarrak» ta Eskubidetarrek adixkide ona ta leiala izaten degu guziok.

Beste gauza bat: euskera erdi-aaztuta badu ere —egun gutxi dira beronek onela aitortu zidan— bere jatorrizko izkuntza asko maitatzen du.

Ori'o'n txikitzen besterik etzan mintzatu ta orain ere euskerari oso pozik jotzen dio egokiera agertzen danean.

Urte asko bizi dakigula guzuzkoraz aundi au!

Carlos Santamaria'k

COTE D'AZUR-DIK

Vallauris, Picasso-ren udako Kabia

Picasso-k, Côte d'Azur du udarako bere kabi atsegiña. Europako aberats askok ere toki beratu dute. Guk berriz egun batzuek camping -ean igarotzea ere aski degu. Au ezta gure patrilkarako egiña.

Picasso-ren bizi lekuatuz Cannes aipatzen da, baña bere txoko maitatua ezta Cannes berbera, andik kilometro gutxira dagoan Vallauris baizik.

Vallauris-ko errioxa, Golfejuan-dik laurenbat kilometrota dago, itxas egaletik barruruntz. Provenzako zeramikagileen sesaka da. Erri guzia oriatik bizi bai da, ta berez izatez duan txikitasean izen aundioa da Frantzia guzian. Zeramikako arteari zor dio bere izen aundia. Orregaitik, ezta arritzekoa toki au izatea Picasso-ren udarako atsedan toki maitagarria. Bere giroan bizi bai da.

Frantziako artistarik geienak, obeto esanda Paris-koak, Côte d'Azur dute beren leku artua. Beren izena entzutea egin dutenak jartzen dituzte berebizi-ko erakusketak Cannes, Nice eta Saint-Raphaël-en. Eta oraindik beren izenak aipagarri egiteke dauden asko, batez ere gazteak, Saint-Tropez, Juan-les-Pins eta orrelako lekuetan ari dira itxas baxter edo kabi bazterretan pintatzen, bohemia bizian.

Beriz, guzietan aipagarriena, ezaugarriena, miragarriena, Côte d'Azur (Itxasertz Urdiña) dan guzian, Vallauris-ko errioxa da.

Vallauris-ek asko zor dio Picasso-ri, eta Poccassok berari ere ez gutxi. Alkarren arteak ezaugarri dituzte kidetasun orratetik.

Gaur, ezta zeramika bakarrik Vallauris-en izakeran. Izakera uts orregaitik bakarrik ixilik geldituko zan bere izena. Gaur, Picasso-ren korrontetik, beste pintore asko dijoaz bertara ta orrek egindu Vallauris dan au. Gaur, bertako zeramik Paris-ko eskola berrien dibujo ta koloreak dituzte beren azaletan, ta ori da Vallauris-ko artearen mirakulua: errioxa bateko artesia goiko malletako arte biurtzea. Gaur, Vallauris-ek ere izen aundidun artistak ditu bere semeen artean, ta egunero, naiz uda edo naiz negu, millaka turistak eta artezaleak eltxen dira Europako alde guzietatik bertako lanak ezagutu nairik. Gaur, Cannes, Nice eta Monte-Carlo txiki utzitzen ditu arte kontuan.

Zeramistik onenak beren erakusketak dituzte kentzeke, ta oiez gañera Picasso-k ere badu bere bat, azkenaldian sortu dituan lanak adieraziz.

Udara onetan berrogeitamar artistarekin antolatutako erakusketa bat dago, ta etorkizuneko arte berriaren antologia bezela anoniziatzen dute. Artistarik geienak Frantzezak dira, eta azaltzen duten arterik geiengeia astraktoa da. Nere iritzian, neronek beintzat, orain arteraño ikusi ditudanik astraktorik onenak dira. Dekorazio alde-rik begiratuta, eta ez det us-te astraktoak beste egaritzeko modurik duenik, bikañetarikook dira.

Beste saloi batean, Picasso-k antolatuta, bera ere tarteen dalarik, beste antologia bat dago, ta da, Vallauris-ko zeramistik onenak parte arturik egiña beren arteko baten omenez, larogeta bost urteko artista bati. Benetan ikusgarria da erakusketa au. Eskeintza oberik ezin zezakean egin agura orri.

Gero, Picasso-ren etxean, bere lanen batzuek gañera, Afrika ta Ozeaniako arte-errikoien azalpen batzuek bere kolezio-rik artuak, eta aparteko gela batean Zadkine eskultorearen ogeitasei irudi. Zadkine dalako au Smolensken jaioa da, baña amar uret zituantik Paris-en bizia. Bere joera ere astraktoa da, baña ez guziz. Bere irudiak indarra ta jatoritasuna dute. Bere lan oietan geien azaltzen dana «Van Gogh a travers champs» irudi bizia da.

Orrenbeste «poteri» ed erikustek, azkeneko mozkortuta bezela uzten du begiralea. Lantegirik geienak irikiak dira, norma turistak ikusteko eran. Ta, eragospen gabe erantzuten dute bizitate galdereri.

Bi artistekin mintzatu gera, kostanda eta Giraud-ekin. Giraud-ek jakin zuanean euskaldunak giñala, irri-parrez esan zidan eura ere beste izkuntza baten jabe zirala franzezagandik aparte, guk euskera degun bezela españoles aparte. Baña provenzal izkuntza askoz ere galdugoa dago gure euskera baño, erri txikitian gizon nagusieri bakarrik entzuten zaie. Artistari oiek pena dute provenzalak daraman gañbera larrira ikusiaz. Federic Mistral-en «Mireio» gure Orixe-k euskerara itzuli zuala oso pozik entzun zuten, orotzape mingarri bat naberiz bezela. Baña, euskerak orain duan egoera larrira adierazi nien.

Iñoiz Provenza -ko alderdi onetara iritzen danak ez dedilla utzi Vallauris bizitatu gabe. Vallauris-en, bustiñak arkitzen du gorputza, gizonak bere arimaren zatia eskeñiz.

Cannes, 14-8-63.

J. San Martin

"ZERUKO ARGIA" - Oquendo, 22 - SAN SEBASTIAN

FRANQUEO CONCERTADO N.º 37 - 21

JOAN ZULAIKA

Argueda de Arnedo

NAIG